



Aldatu egiten dira lurzorruak?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.

HELBURUAK

- Lurzoruaren izaera dinamikoa barneratzea eta beraren ezaugarriez ohartzea.
- Lurzorua babesteko neurriak aztertu eta proposatzea.

A) Ondoko marrazkian, non daude lurzoru onenak? Zeinek dute desagertzeko arrisku txikiagoa?



B) Hiru marrazki hauetan hiru lurzoru profil irudikatu dira.



Begiratu ondo eta erantzun galdera hauetara:

- Beti izan dira horrelakoak A, B eta C lurzorruak? Beti izango dira horrelakoak?
- Ordenatu hiru profilak bakoitzaren garapen mailaren arabera. Zeinek izan ditu aldaketa gehien?
- Lehenengo marrazkiari (A) dagokionez, zure ustez, paisaiako zein lekutan egon liteke aztertutako lurzoru mota bakoitza?
- Garatu liteke bertan nekazaritza edo basogintza ustiapenik? Zer neurri hartu beharko genituzke lurzorruak egoera onean mantentzeko?

Iturria

ARTIGUE, B. et al. **Proyecto curricular del área de ciencias de la naturaleza. Materiales curriculares ESO 4.** Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1995.